Ezagutzen ditugu adimen-gaitasun handiko haurrak?



Sekuentzia honetan helburu hauek landuko dituzu:

- Ahozko erreportajearen zenbait azalpen ulertzea.
- Ahozko erreportajearen zati baten laburpenari erreparatzea.
- Idatzitako artikuluaren hiztegiari eta zenbait egiturari erreparatzea.
- Gaiaren inguruko hiztegia eta aditz hipotetikoak birpasatzea.

Eta horretarako jarduera hauek egingo dituzu:

- Entzundakoa ulertu den jakiteko erantzun egokiak hautatu.
- Elkarrizketatuak adierazitakoaren zati baten laburpen zuzena identifikatu.
- Idatzizko artikulu bati hutsuneak osatu.
- Esaldiak euskaratu, gaiaren inguruko hiztegia eta aditz hipotetikoak praktikan jartzeko.

Adimen gaitasun handiko haurrak

Euskadi Irratiko saio honetan adimen-gaitasun handiko haurrez hitz egingo zaigu Mensa elkarteko buru den Elena Sanzen adibidetik abiatuta. Jacqueline Barker, berriz, gurasoak biltzen dituen Aupatuz izeneko elkarteko ordezkaria da eta haur hauek hezkuntza-alorrean bizi duten egoeraz eta dituzten zailtasunez hitz egingo digu.

Elkarrizketa arretaz entzun ondoren galdera hauei dagozkien erantzun egokiak hautatu behar dituzu.

https://labur.eus/lGAnR

1. MENSA elkarteak Espainiako Estatuan...

☐ adimen-gaitasun handiko 1.500 pertsona baino gehiago batzen ditu.

☐ adimen-gaitasun handiko 1.500 pertsona inguru batzen ditu.

☐ adimen-gaitasun handiko 2.500 pertsona inguru batzen ditu.

2. Elena Sanzek noiz jakin zuen ziur adimen-gaitasun handikoa zela?

☐ 42 urterekin adimen-testa egin ziotenean ziurtatu zuen.

☐ Ume-umetatik bazekien beste haurrek baino adimen-gaitasun handiagoa zuela.

☐ Umetan berak nabaritu zuen beste haurrengandik berezia zela.

3. Gurasoak nola ohartzen dira beren seme-alabak adimen-gaitasun handikoak direla?

☐ Etxean daudela, arreta berezia behar dutela ohartzen direnean.

☐ Haurrak eskolara joaten direnean, bertan beraien arteko konparaketak egiten hasten baitira.

☐ Eskolan bertan, zenbait arazo eta oztoporekin hasten direnean.

4. Heziketari dagokionez, gurasoek, beren seme-alabak adimen-gaitasun handikoak direla behin jakindakoan…

☐ zorionez edo pozez hartu beharrean, batzuetan hori traba bat dela ikusten dute.

☐ oztopo handiak aurkitzen dituzte beren seme-alaben heziketaz inor ez delako benetan arduratzen.

☐ zoriontasun eta poztasun handiz hartzen dute.

5. Aupatuz moduko guraso elkarteak Euskal Autonomia Erkidegoan nahiko berriak dira; aldiz, Estatu Batuetan…

☐ duela urte asko hasi ziren elkarteak sortu behar zirela esaten.

☐ oso elkarte garrantzitsuak daude eta gai hau asko lantzen dute aspalditik.

☐ duela 40 urtetik ari dira guraso-elkarteak sortu nahian.

6. Zer dio Jacquelinek haur hauek hezkuntzan izaten dituzten oztopoei buruz?

☐ Oztopo horiek gero eta handiagoak direla, eta ez dela saiakerarik ikusten horiek gainditzeko.

☐ Ohiko oztopoez gain beste zenbait oztopo dituztela, beren gaitasun akademikoei ez zaizkielako erantzun egokiak ematen.

☐ Gainerako haurrak baino argiagoak direnez hezkuntzan oztopo gutxiago aurkitzen dituztela.

Hautatu laburpen egokia

Jacquelinek elkarrizketaren amaiera aldera, adimen-gaitasun handiko haurrek hezkuntzan aurkitzen dituzten traba eta oztopoak azaltzen ditu. Nola laburtuko zenuke elkarrizketaren azken 2 minutuetan horretaz dioena? Aukeratu laburpen zuzena.

☐ Haur hauek traba handia dira hezkuntza-sistemarentzat. Eskolan normalean ez dakite nola asmatu haur hauekin eta bada garaia eskolak eta metodoak dibertsifikatzeko.

☐ Haur hauek oztopo gehigarri batzuk dituzte, beraien gaitasun akademikoei hezkuntzak ez dielako erantzunik ematen. Eta hori konpontzeko Jacquelinek dio hezkuntza-sistemak adimen-gaitasun horri malgutasuna eskaini behar liokeela. Horretarako kontuan hartu beharko lirateke adimen-gaitasun handiko haurren artean ere ezaugarri eta gaitasun desberdinak daudela.

☐ Haur hauek garai batean oztopo asko izaten zituzten hezkuntza-sisteman beren tokia aurkitzeko, baina pixkanaka zenbait ikastetxetan saiakerak egiten ari dira haur hauei erantzun egokiak emateko. Eta horiei esker bide luzea egin dute oztopo horiek gainditzen.

Haur hauen berezitasunak: osatu hutsuneak

Artikulu honetan aparteko gaitasunak dituzten haur hauen berezitasunez eta beste zenbait xehetasunez hitz egingo zaizu. Oraingoan hiztegiari eta beste zenbait egiturari erreparatuko diezu. Osa itzazu hutsuneak egokien diren hitzak hautatuz.

ADIMEN GAITASUN HANDIKO HAURRAK: Guraso talde batek ADIMAC taldea sortu zuen, arreta berezia duten umeekin lan egiteko.

Umeen %20 inguruk gaitasun handiak ditu. Beren adimen kozientea 115-130 bitartean dago (hortik gorakoak adimen apartekoa dutela esaten da). Hamaika urtera iristean, ____1_____ , besteak bezalakoak izan nahi dute eta ezkutatu egiten dituzte gaitasun horiek. Eskolak omen du errua, edo __2_____ .

Umeen % 20 inguruk gaitasun bereziak ditu, hau da, adimen kozientea 115etik gorakoa dute, edo ikasteko borondate edo _3_____ berezia. Haur horiekin lan egiteko jaio zen, Bizkaian, ADIMAC, gaitasun handiko adingabeen garapen integralerako elkartea. Adimen apartekoa dutenak (130eko kozientea), aldiz, %3 inguru dira. Badirudi adimena banatzeko orduan ume ___4_____ eta aparteko adimena dutenen kopurua berdintsua dela. Lehenei _5_____ berezia eskaintzen zaie; bigarrenei, ordea, ez zaie jaramonik egiten. Gainera, ume horiek, askotan, harremanetarako zailtasunak izaten dituzte eta, 12 urtetik aurrera, besteak bezalakoak izan nahi dutenez, beren gaitasuna ezkutatzen saiatzen dira.

Arlo batean onak

Gaitasun handiko ume hauei, ordea, laguntza berezia eman behar zaie. «Laguntza berezirik ematen ez bazaie, gaitasunak galdu egiten dituzte eta hori ___6_____ izugarria da, gizarteak ezin lezake onartu. Arlo guztietan __7_____ handia dute ume horiek, baina arlo jakin batean espezializatzeko joera dute. Hilabete pare bat astronomiarekin ibiltzen dira __8_____ eta kolpetik gai hori utzi eta ingeniaritzako gai batera pasa daitezke», erantsi du Imanol Erkiagak.

Ez dira arlo guztietan nabarmentzen. Gehienetan, arlo jakin batez dakite asko. «Guk Muskizen martxan jarri dugun ikastaroan, ume bakoitzak aukeratzen du zein arlotan lan egin nahi duen. Arlo batean ikertzen ikasten duten neurrian, beste arloak ere ikertzeko gaitasuna eskuratzen dute», gogoratu du Iñaki Andresek, elkarteko diruzainak.

Arazoa ez, berezitasuna

Gaitasun handiko umeek ez daukate arazorik. « _9_____ bat dute eta, izatekotan, hezkuntza-sistemak du arazoa, ez delako haur hauen premietara egokitzen. Ikasle guztiei curriculum bera ezartzea, guztiak taila bereko jantziekin janztea bezala da. Horregatik diogu eskolak egokitu behar duela ume hauen beharretara », esan du Imanolek. «Adimen berezia dutela esango nuke nik -Iñaki Andresek hartu du hitza-. Arazoa baino gehiago __10_____ bat dute eta gizarteak dohain horiek garatzeko bitartekoak jarri behar ditu. «Gaitasun handiko ume hauek aspertu egiten dira eskolan. Adimen bizikoak dira, gauza guztiak interesatzen zaizkie eta oso mugituak dira, oro har.

Joxean Agirre. Gaur8.info webgunetik hartua. Testu moldatua.

Galera
Grina
Hala ere
Jakin-min
Motelen
Berezitasun
Buru-belarri
Dohain
Gizarteak
Arreta



Hiztegia lantzen

Oraingoan, gaiaren inguruko hiztegia birpasatuko duzu. Horietako hitz gehienak egindako ariketetan agertu zaizkizu. Behean dituzun esaldiak eta terminoak euskaratu behar dituzu.

Landuko dituzun hitz gehienak hitz elkartuak dira. Hitz elkartuen gaineko azalpenak eta adibideak kontsultatu nahi izanez gero jo ezazu ikasbileko orrialde honetara. Eta arauei buruzko azalpen eta adibide gehiago nahi izanez gero, esteka honetanaurkituko dituzu.

Nola euskaratuko zenituzke?

1. Un niño de un gran nivel intelectual
2. Eta horren aurkakoa? Un niño de bajo nivel intelectual
3. Diversificación del sistema educativo
4. Recursos educativos
5. Flexibilidad del sistema educativo
6. Capacidad y destreza

Hipotetikoak praktikan jarri

Oraingoan baldintzazko aditz hipotetikoa birpasatuko duzu. Proposatzen zaizkizun ariketetan ekintza oraindik ez da gertatu; hau da, azalpena hipotesi baten gainean ari gara eraikitzen. *Adibidez: " pozik gingo genuke, etorriko zinateke, egin behar(ko) genuke"* Aditz hauei buruzko arauak eta adibideak kontsulta nahi izanez gero jo ezazu ikasbileko orrialde honetara.

Euskaratu itzazu honako esaldiak.

1. Deberíamos potenciar la curiosidad de estos niños por aprender.

2. Pero para ello, serían necesarios más recursos educativos.

3. Si nuestro sistema educativo fuera más flexible, la motivación de estos niños sería mayor.

.
4. Sería interesante que nuestro sistema educativo tuviera más recursos educativos.

5. Los padres deberían hablar más con estos niños.

6. Sin duda, deberíamos potenciar más las habilidades de nuestros hijos/as.

Erantzunak

Adimen gaitasun handiko haurrak

1. MENSA elkarteak Espainiako Estatuan...

☐ adimen-gaitasun handiko 1.500 pertsona inguru batzen ditu.

2. Elena Sanzek noiz jakin zuen ziur adimen-gaitasun handikoa zela?

☐ 42 urterekin adimen-testa egin ziotenean ziurtatu zuen.

3. Gurasoak nola ohartzen dira beren seme-alabak adimen-gaitasun handikoak direla?

☐ Haurrak eskolara joaten direnean, bertan beraien arteko konparaketak egiten hasten baitira.

4. Heziketari dagokionez, gurasoek, beren seme-alabak adimen-gaitasun handikoak direla behin jakindakoan…

☐ zorionez edo pozez hartu beharrean, batzuetan hori traba bat dela ikusten dute.

5. Aupatuz moduko guraso elkarteak Euskal Autonomia Erkidegoan nahiko berriak dira; aldiz, Estatu Batuetan…

☐ oso elkarte garrantzitsuak daude eta gai hau asko lantzen dute aspalditik.

6. Zer dio Jacquelinek haur hauek hezkuntzan izaten dituzten oztopoei buruz?

☐ Ohiko oztopoez gain beste zenbait oztopo dituztela, beren gaitasun akademikoei ez zaizkielako erantzun egokiak ematen.

Hautatu laburpen egokia

☐ Haur hauek oztopo gehigarri batzuk dituzte, beraien gaitasun akademikoei hezkuntzak ez dielako erantzunik ematen. Eta hori konpontzeko Jacquelinek dio hezkuntza-sistemak adimen-gaitasun horri malgutasuna eskaini behar liokeela. Horretarako kontuan hartu beharko lirateke adimen-gaitasun handiko haurren artean ere ezaugarri eta gaitasun desberdinak daudela.

Haur hauen berezitasunak: osatu hutsuneak

1) Hala ere
2) Gizarteak
3) Grina
4) Motelen
5) Arreta
6) Galera
7) Jakin-min
8) Buru-belarri
9) Berezitasun
10) Dohain

Hiztegia lantzen

1) Adimen-gaitasun handiko haurra
2) Adimen-gaitasun urriko haurra
3) Hezkuntza-sistemaren dibertsifikazioa
4) Hezkuntza-baliabideak
5) Hezkuntza-sistemaren malgutasuna
6) Gaitasuna eta trebetasuna

Hipotetikoak praktikan jarri

1) Haur hauen (hauek duten) ikasteko jankin-mina bultzatu (suspertu) behar genuke.
2) Baina, horretarako, hezkuntza-baliabide gehiago beharko lirateke.
3) Gure hezkuntza-sistema malguagoa balitz, haur hauen motibazioa handiagoa litzateke
4) Interesgarria (izango) litzateke gure hezkuntza-sistemak hezkuntza-baliabide gehiago izatea.
5) Gurasoek gehiago hitz egin behar(ko) lukete haur hauekin.
6) Zalantzarik gabe, gure seme-alaben gaitasunak gehiago suspertu (bultzatu) behar genituzke.

Transkripzioa

Esataria. Mensa elkarteak adimen-gaitasun handiko 1.500 pertsona inguru batzen ditu Espainiako Estatuan eta orain presidente aukeratu berri dute Elena Sanz izena du, Errenterian jaioa, baina Astigarragan bizi dena, eta presidenteordea berriz, Patxi Gartzia, elgoibartarra. Presidente kargua hartu berritan Elena Sanzekin hitz egiteko aukera izan dugu eta berak azaldu digu batez ere Mensa elkartea elkar topaketarako gune bat dela, klub bat. Bera kimikaria da, eta horretan egiten du lan Gipuzkoako Foru Aldundiaren laborategi batean, baina denetariko jendea dago adimen-gaitasun handiko pertsonen artean. Batzuk karrera bat baino gehiago dutenak, beste batzuk unibertsitatera heldu ez direnak. Berak umetan zerbait nabaritu zuen, bere adinekoek baino bizkorrago harrapatzen zituela gauzak eta abar. Baina, 42 urterekin egin zuen adimen-testa eta orduantxe jakin zuen seguru adimen-gaitasun handikoa zela, biztanleriaren %2a bezala. Pertsona hauek, hala ere, arlo batzuetan hobeto moldatzen dira beste batzuetan baino, Elena Sanzen kasuan.

Dudarik gabe, eta gaitasun hori ondo bideratzen bada ezagutza-maila bat lortzeko erraztasuna izaten dute. Elena Sanzen ustez, hala ere, lana aurkitzerakoan kurrikulumean ez da komeni adimen bereziko pertsona zarela zehaztea. Lander Eizagirre lankideak Jacqueline Barkerrekin hitz egin du, bera gurasoak batzen dituen Aupatuz elkarteko ordezkaria da.

Lander- Jacqueline Barker, egun on!

J- Kaixo, egun on!

L- Gurasoak noiz konturatzen zarete zuen seme edo alaba adimen-gaitasun handikoa dela?

J- Gurasoak konturatzen gara haurra eskolara joaten denean normalean izaten da. Konparaketak hasten dira, ze, ba, haur batek egiten duenagatik edo ez duenagatik, edo zer jokabide duen. Eta hor izaten da, haurra eskolara joaten denean sortzen dira dudak, kezkak edo, zoritxarrez batzuetan arazoak.

L- Eta behin jakindakoan nola hartzen da albiste hori, poztasunez ere bai dinot nik baina kezkaz ere bai?

J- Alde akademikoan gaitasun handiak dituenean haur batek ba, beno batzuetan izan beharrean hara ze ondo! beitu ze ondo hitz egiten duen, zein ondo idazten duen, ba, matematiketan zein azkarra den. Ba, zorionez hartu beharrean ba, batzuetan da pixka bat traba bat, ze, erantzun bat izan beharko zenukeen lekuan ba ez daukazu erantzun hori eta ez daukazu zure gaitasun horretan progresatzeko aukerarik. Orduan, ba, zoriona alde batetik izan daitekeena beste aldetik oztopoa da, arazoa da, eta kezka da.

L. Lehenengo pausua izango da gurasoen aldetik informatzen hastea, nola jokatu jakiten hastea…

J. Bai, gaur egun, zorionez, badaude eh, gurea bezalako, beno gu gaude Aupatuz elkartea, EAE osoari begira, eta gero badaude beste elkarte batzuk ere bai ez? Orain dela 5 urte esan dezagun ez zegoen inolako elkarterik, beste herrialde batzuetan, Estatu Batuetan adibidez, edo Britainia Handian gai hau asko lantzen da, Estatu Batuetan batez ere, eta beno unibertsitateetan eta. Elkarte oso garrantzitsuak daude: guraso elkarteak eta. Gai hau asko lantzen da, eta 40 urte daramate ez, honetan, ikertzen.

L- Zein arazo dituzte ume hauek eskolan?

J- Hasiera batean beste edonork bezalako arazoak izan beharko lituzkete: ez dituzula etxeko lanak egiten edo gehiegi hitz egiten duzula edo beno. Beste edozein haurrak dituen arazoak izan beharko lituzkete, baina, gainerakoek izan ditzaketen oztopoez gain daukate beste oztopo handi bat: gaitasun horiei beraien gaitasun akademiko horiei ez zaiela erantzunik ematen. Hezkuntzaren sistemak teorian EAEn dibertsitateari begira egon nahi du: hala da, eta beno, egin dira Hezkuntza departamentuaren aldetik plan desberdinak baina plan horiek bulegoetan geratu dira eta zoritxarrez ez dira geletan ezarri.

L. Zuek eskatzen duzuena da, ondo ulertu badut, ume hauei euren gaitasun horiek ondo bideratzea.

J. Esan nahi dut ere.. eh, orokorrean erantzuna egokia ez bada ere, ikastetxe jakin batzuen aldetik badira saiakerak. Bidean gaude ez, baina bide luze bat daukagu aurretik.

L. Adibidez, ume bat kirolean ona bada, futbolean ona bada, ume hori herriko taldetik atera eta Atletiken, Errealean edo Osasunan jokatzen hasiko da. Hezkuntza orokorrean ere hori behar da?

J. Hezkuntza sistemak malgutasuna eskainiko balu ez? dibertsitateari eskainiko balio malgutasun hori ez, ba, beno bakoitza iristen da gai desberdinetan edo bere gaitasunaren arabera ba, esan dezagun abiadura desberdinak daudela ez? Gero beste aldetik aipatu behar da adimen-gaitasun handiko haur guztiak ez direla berdinak. Ba, bakoitzak ditu bere talentu batzuk, ezaugarri desberdinak.